

EKAINA
1
EKAINA
7


ekainak 3an ilargi betea

mareak: (Ekainak 26koak)
gora: 04.23 eta 16.46
behera: 10.30 eta 20.54

eguzkia: (Ekainak 26an)
irien: 07.35
sartu: 22.35
(ordulariaren ordutan)

liburuak

Iñaki CAMINO



Egilea: Gema Lasarte.
Titulua: Hitz antzuen azokan.


Argitaletxea: Susa saila 15.
Ezaugarriak: 123 orrialde.

54 bat poema dira Gemak liburuan agerrera dituenak.

Aurreneko momentutik igertzen diogu bere asmoari; erabiliaren erabiliaz eta gezurraren gezur konbentzional faltsuaz indar adierazgarri hustu eta antzutasunez bete diren hitzak erauzi egin nahi ditu bere baratzetik. Lan hau egiterakoan kritikaz baliatuko da maiz. Kritika kutsuko poemetan aurkitu ditugu beren gehiegizko zuzentasuna dela medio, poema antza gutxi dutenak,

zuzenegi eta errazegi litezkeenak. Azaldu beharreko bidenabar, Gemaren poesia ez dela inondik ere iradokitzen duena, gauzak argi eta garbi uzten dituen baina, eta hara bere dohaletan bat: ez da inola ere poesia zaila, hau da, ez duela sakoneko bigarren irakurketa edo interpretaziorako beharrik. Poesia zehatz eta zuzen hau idazten duena irudimen handiko, oso handiko esangon nuke nik, norbait dela ez dago ukatzerik, asmatzen dituen marko poetikoak benetan ezin pentsatuzkoak baitira, topikoetatik urrun, aberatsak eta ederrak. Ez dago inolako beldurrik inor Gemaren poesiaz gozatu gabe geratzeko, errekurso nabarmeneko baitugu bera, hitz batez esateko, olerkaria dugu liburuaren egilea, benetakoa.

Ez da formalistegia, gauzak beren zuzenean adieraztea du gustokoen. Nik, egia esateko, moralaz, erreprezioaz eta antzeko erreibindikazioez diharduten poemak aurkitu ditut balio handirik gabeak, beste guztiak, eta gehienak dira, oso poetikoak eta irudimen aldetik aberatsak topatu ditut. Pena merezi duen liburuak dugu.



Egilea: Txillardegik.
Titulua: Kosmodromo.
Argitaletxea: Haranburu editor.

Ezaugarriak: 450 pta. 75 orrialde.

Txillardegik 1957, 1958 eta 1969. urtetan idatzitako lau ipuinen bilduma dugu

honako liburuxka. Bi «Egan» aldizkarian atereak dira eta beste hirugarren bat flamenkeraz. Halarik ere, euskaldunok oso zaila genuen ipuin hauek eskuratzea eta argitaratu egin dira atzera ere.

Bata motza bestea luzea eta beste biak neurri ertainekoak. Bada bat, gizakia ilargira aurreneko aldiz iritsi zen garaian idatzia. Honek, gizakia robotak nola desumanizatu duen ematen digu aditzera, sendimenduen mugaketa razionalak dakartzan arriskuak salatuz. Bada beste bat, denetan motzena, Piarres deitutako mutiko gaiso batez diharduena. Bere eritasunerako ez dago ez osalaririk ez eta osagaririk. Hasi dira bata eta bestea honen gaisotasunak igerrri nahian bera bakean utzi gabe. Ipuinak badu oinarri kritiko nabarmena.

«Orangutanen ugartea» deitana 1957. ean idatzia da, eta bertan, erlijioaren inguruko gogoeta bortitzez gain, gizakia eta animalia eta piztia beldurgarrien arteko antzekotasun errelatiboa ageri zaigu «Eta ez ziren sekula itzuli», 69. urtean izkiriaturako ipuin luzea dugu, flamenkeraz aspaldian ageri zena. Ipuinean barrena, Lapurdiko baserritar batek, mugerretar batek dauzkan buruhauste eta bakardade minak ikus daitezke. Honek ere, aurreko hirurek legez badu kritika izateko asmorik. Argi argia ageri zaizkigu Bidasoaz bestaldeko euskaldunek abertzaletasunaz dituzten burutapenak, edota, lanik eza dela eta Ameriketa aldera hanka egin beharra, turisten aurrean dantzaz jantzita agertu beharra ez denean. Ipuin honek duen oinarri ideologikoari, dena dela, jazki literario oso lortua antzematen zaio, gertaera erdiragarriak artoski azaltzen baititu idazleak.

Hau da guri, gure subjeti-boan, kontaearen egitura-gatik nahiz beste arrazoi batzuegatik, gehien gustatu zaiguna, arrotz igertzen baita besteetan ideologiaren

zama. Halabainan, ipuin hauek kalean, joandako garai batzuren ordezkari egia-ti.

LANAREN ANTROPOLOGIA (II)
Lehen Atala



Roman Garate

Egilea: Roman Garate.
Titulua: Lanaren antropologia (II). Lehen atala.
Argitaletxea: Gero. 64.
Ezaugarriak: 1.300 pta. 277 orrialde.

1973. ean atera zuen Roman Garatek lan honen lehen puska, izenez ere hau bezalakoa. 12 urte beranduago, lanaren bigarren zatia. Harako hartan Garaudy, Marcuse, Zubiri, Castilla del Pino, Althusser, Freud, Akinoko Tomas eta Marxen ideiak aztertzen baziren, honetan izenen zerrenda aberastu egin da hauexekin: Balibar, Lamo de Espinosa, Engels, Gelhen, Gortz eta nola ez arestian aipatutako besteak. Lanaren antropologiari hainbeste aberastasun eskaini zion Karl Marx du honetan ere gidari; materialismo historikoa, lanari, gizakiaren eta naturaren arteko harremanari dagokion neurrian aztertzen da. Marxen «Kapitala» liburuko (Lan prozesua) atala oinarritzko bihurtzen da lan honetan barrena.

Aurreneko atalean, Marcuseren ideiak aztertzen dira, lana atseginarekin guttiz kontrakoa dela kuestionatuz. Bigarrenean, bere lan materiala dela bide, materialismo historikoaren subjektu den gizakiari sarre-ra egiten zaio. Hirugarrenean lana, jabegoa eta komunismoa aztertzen dira. Laugarrenean berriz, langilea eta lanaren arteko dia-